

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
HEZKUNTZA SAILA

5945

AKORDIOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzkoa, EAEko langile langabetuei eta landunei zuzendutako prestakuntza-programazioa egiteko.

Alde batetik, Beatriz Artolazabal Albeniz andreak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazioako kontseiluburu gisa.

Eta, bestetik, Cristina Uriarte Toledo andreak, Hezkuntzako sailburuak,

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.— Maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duenak, bere xedeen artean ezartzen du, batetik, langile langabetu eta landunei bizitzan zehar prestakuntza erraztea, eta lan-merkatuaren egungo beharrei egokitutako kualifikazioa, enpresen produktibitateari eta lehiakortasunari zein sustapen profesionalaren eta garapen pertsonalaren asmoei erantzuteko. Prestakuntza horrek Euskal Autonomia Erkidegoko langileak trebatu behar ditu hainbat lanbide modu kualifikatuan gauzatzeko eta enplegurako sarbidea izateko, inolako bazterkeriarik gabe.

Bigarrena.— Helburu hori lortzeko, aipatutako maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak 23. artikuluan langabetuei zuzendutako prestakuntza-eskaintza arautzen du, honako hau ezarritik:

a) Langile langabetuentzako prestakuntza-ekintzen lehentasunezko helburua haiek laneratzea da.

b) Prestakuntza-eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore ekonomikoen beharrrak bete behar dituzte, eta lan egiteko moduan dauden pertsonen beren lan-proiektua garatzeko behar dituzten gaitasunak eman behar zaizkie. Horren haritik, profesionaltasun-ziurtagiriak dira prestakuntza-eskaintza honen oinarria; dena den, Dekretuak aukera ematen du profesionaltasun-ziurtagirien sortan agertzen ez diren kualifikazioa lortzeko programazioa eta zehar-programazioa baliatzeko.

Bestalde, Dekretu horren 25. artikulua lanean ari diren pertsonen zuzendutako prestakuntza-eskaintza arautzen du, hau ezarritik:

a) Lanean ari diren langileentzako prestakuntza-eskaintzaren lehentasunezko xedea da prestakuntza bat ematea, honako hauei erantzungo diena: enpresen produktibitate- eta lehiakortasun-eskakizunei; produkzio-sisteman dauden aldaketetara egokitzeko beharrezkoak eta langileen lanbide-sustapenerako eta garapen pertsonalerako aukerei. Prestakuntza horren bidez, lanbide ezberdinetarako kualifikazioa izango dute, eta haien enplegarritasuna hobetu egingo da.

b) Prestakuntza-eskaintza honek enpresek programatutako prestakuntzan bete gabe dauden beharrezkoak beteko ditu, eta harekin batera emango dira, modu osagarrian, prestakuntza-programen bidez. Programa horiek sektoreko nahiz zeharkako beharrezkoak erantzungo dieten prestakuntza-ekintzak hartuko dituzte barne. Moduluko prestakuntza-eskaintza bat ere erraztuko du, egiaztatutako partzial metagarriak errazteko, bai eta lan-esperientziak emandako gaitasunak onartzeko aukera emango duten prozedurak ere.

Hirugarrena.— Maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak EAEko jarduera-eremura transladatzen du irailaren 9ko 30/2015 Legea, Lan-eremuan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena, lan-eremuan enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren planifikazioa eta finantzaketa arautzekoa, prestakuntza-ekintzen programazioa eta gauzatzea, kontrola, jarraipena eta zehapen-erregimena, bai eta sistemaren informazio-sistema, ebaluazioak kalitatea eta gobernantza ere.

Laugarrena.— Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, bosgarren xedapen gehigarrian (Ekonomia Jasangarriaren Legea osatzeko martxoaren 11ko 4/2011 Lege organikoak berridatzia) adierazten du hezkuntzako eta laneko administrazio eskudunek hezkuntza-sisteman lanbide-heziketa emateko baimenduta dauden eta beharrezko eskakizunak betetzen dituzten ikastetxeentzat prozedura bat ezarriko dutela, enplegurako lanbide-heziketa ere eman dezaten, eta hezkuntza-sistemako eta enplegurako lanbide-heziketa integratuta eskaintzen duten eta funts publikoekin sustengatuta dauden ikastetxeek garatzen dituzten enplegurako prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-baliabideak lor ditzakete, hezkuntzako eta laneko administrazioek adosten dituzten lankidetzak-mekanismoen arabera.

Bosgarrena.— Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 24/2016 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dio enplegu-politika eta, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako arloarekin koordinatuta, enplegurako lanbide-prestakuntza.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailari atxikitako egonik, enplegua, enplegu-prestakuntza eta autoenplegua eta enpresa-sorkuntza sustatzeko zeregina du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen 3.b) artikulua betez. Enplegurako prestakuntzaren barruan sartzen dira, eskaintzen den prestakuntzari lotuta, lehentasunez langabeei eta landunei zuzentzen zaizkien prestakuntza-ekintzak.

Seigarrena.— Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretua betez, sail horri dagokio bizitzan zehar kualifikazioak hartzea edo areagotzea dakarren lanbide-heziketa osoaren plangintza estrategikoa, diseinua eta jarraibideak egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzak estuan jardunez, hari dagozkion erantzukizunetan.

Zazpigarrena.— Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak (urriaren 17ko EHAA) eta EAEko Lanbide Heziketako IV. Planak, 2014-2016 aldikoak, nabarmentzen dute lanbide-heziketako eskaintza integratu bat egin beharra, titulartasun publikoko nahiz pribatuko ikastetxe-sare zabal baten bidez, bai hasierako lanbide-heziketan, bai enplegurako lanbide-heziketan.

Zortzigarrena.— Bestalde, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak 13. artikuluan berariaz aurreikusten du enplegurako lanbide-heziketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematea, Eusko Jaurlaritzaren zentroetan, kudeaketako atxikipen-akordioak izenpetuz, eta titulartasun publikoko Lanbide Heziketako Zentro Integratuak bere ikastetxe gisa hartuta.

Xedapen hori betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Hezkuntza Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko langileei gaitasunen beharrei erantzunez eta efikazia-arrazoiak nahiz erabilgarri dauden baliabide publikoen erabilera optimizatzeko arrazoiak kontuan hartuta, kualifikazio profesionala lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzen programazioa bultzatzen dute, espezifiki Hezkuntza Sailaren mendeak diren Eusko Jaurlaritzaren lanbide-heziketako zentro publikoen sarean.

Hartara, lan-merkatuaren egoera aintzat hartuta, eta enpresa-sarearen beharrianak eta zentro publikoen sarearen prestakuntza-gaitasuna ikusita, Lanbide erakunde autonomoak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politikak eta Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren zentroekin garatu beharreko prestakuntza-ekintzen plangintza garatu dute, eta kudeaketa-gomendio hau izenpetzea hitzartu dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutako esparruarekin bat etorritz. Hona hemen akordio hori arautuko duten

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Xedea.

Akordio honek arautzen duen kudeaketa-gomendioaren xedea da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasunekoak diren prestakuntza-zentroek prestakuntza-programazio bat egitea, hauei zuzendua:

- a) Akordio honen I. eranskinean biltzen diren langabetuak.
- b) Akordio honen II. eranskinean biltzen diren landunak.

Agindu honen xede diren prestakuntza-jarduerek osatzen duten programazioari 2017 ekitaldian emango zaio hasiera, eta, gehienez, 2018ko irailaren 28an amaituko da.

Bigarrena.— Prestakuntza-eskaintzaren plangintza egitea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikas-kuntza Zuzendaritzak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzak kudeaketa-gomendioari buruzko akordio honetan bildutako prestakuntza-eskaintza diseinatu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuei eta landunei zuzendua izango dena, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden lanbide-heziketako prestakuntza-zentro publikoetan gauzatuko dena. Prestakuntza-eskaintza horrek bi xede ditu: batetik, langabetuen kualifikazio-beharrianak ase-tzea, eta, bestetik, eskuragarri dauden baliabide publikoak ahal den ondoen erabiltzea.

Prestakuntza-eskaintza zehazteko, aintzat hartu dira EAEko lurralde eta eskualdeetako lan-merkatuaren eta industria-sarearen egoera, hezkuntzaren eremutik eta enplegurako lanbide-heziketatik egiten den lanbide-kualifikazioei buruzko prestakuntza-eskaintza orokorra, eta egun dagoen zentro publikoen sarea eta zentro horietako bakoitzak duen prestakuntza-gaitasuna, betiere aldez aurretik identifikatuta zentroek eman ditzaketen profesionaltasun-ziurtagiriak, haien instalazioak, ekipamenduak eta irakasleak kontuan hartuta.

Horrez gain, Hezibi eta Lehen Aukera programetan parte hartu duten prestakuntza-zentroak ere kontuan hartu dira.

Hirugarrena.— Prestakuntza-planak.

1.— Prestakuntza Plantzat hartuko da prestakuntza-behar jakin batzuei erantzuteko prestakuntza-zentro bakoitzak egin beharreko prestakuntza-ekintzen multzoa, betiere kontuan hartuta, ekintzak zuzentzen diren taldearen tamainagatik, aurreikusitako prestakuntza-orduen bolumenagatik edo bestelako ezaugarri garrantzitsu batzuek, planaren onuradunen gaitasunak eta haien enplegarritasuna nabarmen hobetzen direla.

2.— Prestakuntza-planak hasitzat hartuko dira haien baitako lehen ekintza hasten denean.

3.– Planak profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzekin, izaera berritzaileko prestakuntza-ekintza ez-formalekin edo oinarrizko gaitasunetan landunei prestakuntza ematera bideratutako sektore produktibo jakin bateko berariazko edo/eta zenbait jarduera-sektore-tako gaitasun horizontal eta zeharkako beste batzuekin osatuko dira.

Laugarrena.– Finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak.

Agindu honen xede diren prestakuntzaren programazioa finantzatzera bideratutako kredituaren guztizkoa zortzi milioi laurogeita hemezortzi mila seiehun eta berrogeita hamabost euro eta laurogeita bi zentimo (8.098.655,82) eurokoa da; eta horietatik:

– 5.998.837,60 euro lanik gabe dauden langileen prestakuntza-ekintzetara bideratuko dira; horietatik 1.999.412,57 euro 2017ko kredituaren ordainketari dagozkie, eta 3.999.425,03 euro, 2018ko konpromisozko kredituari.

Finantza-baliabide horiek Europako Gizarte Funtsaren laguntzaz finantza daitezke, EAEko 2014-2020 EGF Programa Operatiboaren esparruan edo Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan.

– 2.099.818,22 euro lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratuko dira; eta horietatik 524.954,55 euro 2017ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 1.574.863,67 euro 2018ko konpromiso-kredituari.

Bosgarrena.– Prestakuntza-programazioa eta hartarako zuzkidura ekonomikoa.

1.– Hiru lurraldeetako zentro publikoetan egin beharreko prestakuntza-planeko prestakuntza-programazioa I. eta II. eranskinetan jasota dago, eta haietan adierazi dira eman beharreko prestakuntza-ekintzak, zer prestakuntza-espezializaziori dagozkien, zer prestakuntza-zentrok emango dituen, ordu-kopurua, ikasle-kopurua eta zuzkidura ekonomikoa identifikatuta.

2.– Prestakuntza-zentro batek eman beharreko prestakuntza-ekintzek osorik finantzatzeko den Prestakuntza Plan bakar bat osatuko du.

3.– I. eta II. eranskinean jasotako prestakuntza-ekintza bakoitza finantzatzeko zenbatekoa parte-hartzaileen eta prestakuntza-orduen kostuaren mende dago, modulu ekonomikoen arabera; haien konposizioa eta kalkulua III. eranskinean daude zehaztuta.

Aplikatu beharreko modulu ekonomiko bakoitzak hiru modulu ditu: A modulua, langileen kostu zuzenei buruzkoa; B modulua, funtzionamenduaren kostu zuzenei buruzkoa; eta C modulua, zeharkako kostuei buruzkoa.

Seigarrena.– Alta ematea Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan.

I. eta II. eranskinetan jasotako programazioan parte hartzen duten zentroak ofizioz egiaztatuko edo/eta inskribatuko ditu Lanbidek eman duten prestakuntza-espezialitatean, eta datuak Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistrora igorriko dira.

Zazpigarrena.– Zuzeneko harremana izatea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta lanbide-heziketa zentroen artean, eta ordaintzeko modua.

1.– Prestakuntza-programazio hau gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zuzeneko harremana izango du programazioan aritzen den prestakuntza-zentro bakoitzarekin.

2.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren antolamendu ekonomiko-finantzarioarekin bat etorriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-ekintza bakoitza emateko esleitu den diru-zenbatekoa sartuko du sail horren lurralde-ordezkaritzen kontuetan.

Ordainketen erregimena hau da:

a) Lehen ordainketa 2017 ordainketa-kredituaren kontura.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko akordioa argitaratu ondoren ordainduko da, Prestakuntza Planaren lehen prestakuntza-ekintza hasi ondoren, 2017ko abenduaren 31 baino lehen.

Zentro bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa hau da: zentroaren Prestakuntza Planaren langabeentzako prestakuntza-ekintzen multzoaren % 33,33 gehi landunentzako prestakuntza-ekintzen multzoaren % 25.

b) Bigarren ordainketa 2018ko konpromiso-kredituaren kontura.

2018ko aurrekontuak indarrean sartzean ordainduko da, Prestakuntza Planaren garapena egoia dela egiaztatu ondoren.

Zentro bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa zentroaren Prestakuntza Planaren langabeentzako prestakuntza-ekintzen multzoaren % 26,67 gehi landunentzako prestakuntza-ekintzen multzoaren % 35 izango da.

c) Hirugarren ordainketa 2018ko konpromiso-kredituaren kontura.

Gainerako % 40a, langabetuentzako prestakuntza-ekintzen multzoa zein landunentzako prestakuntza-ekintzen multzoa, ekitaldi horretako konpromiso-kredituaren kontura, egotzitako jarduerak eta Prestakuntza Plana finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak likidazioa justifikatu ondoren, hamargarren klausularen 1.t) atalean zehaztutako terminoetan.

Zortzigarrena.– Prestakuntzaren hartzaileak.

1.– Programazio honetan aurreikusitako prestakuntza-ekintzetan hauek har dezakete parte:

1.1.– Langabetuei bideratutako ekintzetan: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman duten langabeek. Ez da beharrezkoa izango enplegu-eskatzaile gisa izena ematea berariazko arau batek hala zehazten duenean, eta, bereziki, Gazte Bermerako Sistemaren fitxategian izena emandako gazteen kasuan, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 11.3 artikuluan ezarritakoa betez.

1.2.– Lehentasunez landunentzat bideratutako ekintzetan: EAEko langile guztiak. Horrelako ekintzetan, hauek ere parte har dezakete: mendeko pertsonen arretarekin lotutako prestakuntza-eskaintzan mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten zaintzaile ez-profesionalek, eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek, Planeko landunentzako ekintzen multzo osoko ehuneko 10 arte gehienez.

Ekintza horietan, Enplegu Zerbitzu Publiko batean eskatzaile gisa izena emandako landunen partaidetza % 30 izango da gehienez prestakuntza-ekintza bakoitzean. Zentzu horretan, parte-hartzaileak langabetzat hartuko dira baldin eta trebakuntza-ekintza hastean egoera horretan badaude, eta Lanbideko izena emanda dauden pertsonak lehentasuna izango dute.

2.– Eskaintzen diren prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonak haietan sartzeko eskakizunak bete beharko dituzte, eta prestakuntza hastean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa izena emanda egon behar dute, edo, lana badute, dagokien eskaera aurkeztu behar dute.

Bederatzigarrena.— Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonak hautatzea.

a) Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen aurrehautaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egingo du ikastaro bakoitzean parte hartzeko hautagaien artean.

Hautagaiak bide hauetatik etor daitezke:

– Ikastaroaren eskatzaileak, eskaera aurrez aurre Lanbidek herrialde bakoitzean duen bulego-sarearen bidez edo Lanbideren webgunearen bidez (www.lanbide.euskadi.eus); hain zuzen, han argitaratuko dira prestakuntza-ekintzak, haietan izena emateko epeak eta eskatzaileek bete beharreko eskakizunak, prestakuntza-ekintza bakoitzaren deskribapen eta ezaugarriez gain.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Orientazio Zerbitzuak prestakuntza-ibilbidearen baitan ikastaroa agindu dien enplegu-eskatzaileak (eta DSBE jasotzen dutenak).

– Prestakuntzako Zentro Publikoetatik edo orientazio-zerbitzuetatik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bideratutako ikastaroen eskatzaileak.

Prestakuntza Ekintzen Kudeaketa Lanbideren prestakuntzako aplikazio informatiboaren (LAN-F) bidez egingo da.

b) Azkenik ikastaroetan parte hartuko duten ikasleen aukeraketa Prestakuntza Zentroen esku egongo da eta haien instalazioetan egingo da, Lanbideren bitartez izena emandako hautagaien artean; eta beharrezkoa den prestakuntza-ekintza guztietan aukeraketa-proba bat egingo da, ekintzaren aprobetxamendua segurtatzeko eta aurretiko ezinbesteko ezagutzen benetako maila jakiteko, 2. eta 3. kualifikazio profesionaleko mailen profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza-moduluetakoko prestakuntzan hasteko behar diren oinarritzko gaitasunak barne.

Prestakuntza-zentroetako arduradunek zehaztuko dute zer bitarteko tekniko eta material behar diren aukeraketa egiteko, ikasleek Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzeko errege-dekretuetan eskatutako sarbide-eskakizunak betetzen dituztela segurtatuz.

Prestakuntza-ekintza batean profesionaltasun-ziurtagiri oso bat programatzen bada, egiaztatutako prestakuntza-modulu bakar bat ere ez duten pertsonak soilik izango dute parte hartzeko aukera.

Profesionaltasun-ziurtagiri batekin lotutako prestakuntza-ekintza bat moduluka programatzen bada, profesionaltasun-ziurtagiriaren gainerako moduluak gaindituta dituzten pertsonak izango dute lehentasuna, profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza-ibilbidea osatzeko. Horrelakoetan, gainerako moduluak gaindituta dituzten pertsonak sartuko dira, lehenik eta behin, prestakuntza-ekintzan, eta, bigarrenik, ziurtagiriaren gainerako moduluen ikastarorik egin ez duten pertsonak.

Baldin eta, laneko esperientzia bidezko eta/edo prestakuntza ez-formal bidezko Gaitasuna Aitorzeko Egituraren deialdiren batean, Aholkularitza- edo Ebaluazio-fasean, prestakuntza-premiak antzematen badira, eta premia horiek direla-eta prestakuntza-ekintza bat programatzen bada, ekintza horretan parte hartzeko lehentasuna izango dute prestakuntza-premia hori antzeman eta preskribatu zaien pertsonak.

Prestakuntza-ekintzan parte hartzeko baldintzak bete eta dagokien hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen artean, kolektiboen arabera lehentasuna ezarriko da, honako hurrenkera honi jarraituz:

1) Langabeentzako ikastaroetan:

– Lehenik eta behin, eta lehentasun-maila berberaz, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenak. Lehentasuna emango zaie kualifikazio-maila baxua duten pertsonari: 30 urte arteko

gazteak, langabeen kolektiboan duten pisuaren proportzioan; luzaroko langabeak; 45 urtetik gorakoak; desgaitasuna dutenak; langabezia-saria agortuta duten eta berriz profesionalki gaitzeko Prepara programan eta Enplegua Aktibatzeko Programan (EAPn) parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; Txertaketako Errenta Aktiboaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak; terrorismoaren biktimak eta Genero Indarkeriaren biktimak.

– Bigarrenik, lan-esperientzia aitortzeko prozeduretan eta ikaskuntza ez-formaletan parte hartu duten pertsonak, dagokien profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar diren prestakuntza-ekin-tzak egiteko.

– Hirugarrenik, etendurako EEE baten eraginpean dauden langabeak, ordutegia dela-eta prestakuntza-ekintzara joateko libre badaude.

– Laugarrenik, gainerako langabeak, oro har.

2) Lehentasunez landunei zuzendutako ikastaroetan.

– Pertsona landunak, plazen % 70 osatu arte, gutxienez.

– Langabeak, plazen % 30 osatu arte, nahikoa bete ez badira.

Pertsona batek ezingo ditu bi ikastaro batera egin, baldin eta ikastaro horiek egiteko beste eskabide batzuk badaude, eta eskatzaileak langabetuak badira (betiere, sarbide-eskakizunak betetzen badituzte).

Aukeraketa amaitu ondoren, Prestakuntza-zentroek 7 egun balioduneko epea izango dute emailtza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren (Lan-F) aplikatiboan mekanizatzeke.

c) Hautatuak izan direnen eta ikastaroetan parte hartzeko erreserba-egoeran gelditzen direnen zerrendak erakutsi behar dituzte prestakuntza-zentroek beren instalazioetan, prestakuntza-ekin-tzak abiarazi baino 24 ordu lehenago gutxienez eta hautagaiei aldez aurretik adierazi zaien leku batean. Horrekin batera, prestakuntza-ekintzak non, noiz eta zer ordutan egingo diren adierazi behar dute.

Iragarpen-bitarteko horiez gainera, egoki iritzitako bestelako bitartekoak ere balia ditzakete prestakuntza-zentroek alderdi horien berri emateko ikasleei. Prestakuntza-zentroek ordainduko dute hautaketa-prozesuen emailtzen berri emateko bitarteko osagarri horien kostua, halakorik balego.

Hamargarrena.– Aldeen betebeharrak.

1.– Prestakuntza emango duten zentroek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Agindu zaizkien prestakuntza-ekintzak, akordio honen I. eta II. eranskinean adierazitakoak, gauzatu behar dituzte, aurreikusitako ordu eta egunetan, eta haietan gerta daitezkeen aldaketa esanguratsuen berri eman behar diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea prestakuntza-jardueren hasiera, LAN-F aplikazio informatikoaren bitartez.

c) Segurtatu behar dute prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten irakasleek bete egiten dituztela profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituzten errege-dekretuek prestatzaileentzat ezartzen dituzten eskakizunak. Ikastaroak ematen dituen ikastetxeak betetze-maila horri buruzko ziurtagiria aurkeztuko du, informatika-aplikazioaren bidez emandako ereduari jarraikiz. Halaber, Lan-F programan sartuko da ikastaroa hasi baino lehen.

d) Ikastaroen hasieran, gutxienez honako material hau emango diete prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenei:

- Eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatikoan, espezialitatearen eduki guztiak bilduko dituen,

- Ikastaroa garatzeko beharrezkoa den idazmahaiko materiala eta ezinbestekoak diren babes-elementuak.

Prestakuntza-ekintzek berariaz jakinarazi behar dute Europako Gizarte Funtsak material didaktiko horiek eta sortutako beste material batzuk diruz lagundu dituela.

e) Lanbide-informazioa eta -orientazioa eman behar diete prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi duten pertsonari, haien prestakuntza-premiak eta programatu diren prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko aukerak argitzea.

f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsak programa honen arabera emandako prestakuntza-ekintzetarako finantzaketa komunikazio-ekintzetan argitaratzea, publikizitatea egitea eta hedatzea.

g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariek lankidetzan aritu behar dute, prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko prozesuan, eta ziurtatu egin behar dute aukeratutako izangaiek bete egiten dituztela ikastaroetako sarbide-eskakizunak.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariei eman behar diete haiek ikastaroen egoerari buruz eskatzen dieten informazio guztia.

i) Parte-hartzaileen prestakuntza-ebaluazioa eta ebaluazio batutzailea egin behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoan Profesionaltasun Ziurtagiriak Garatzeko eta Aplikatzeko 2016-2017. urteko jarraibideekin bat etorritik, eta plangintza eta banakako ebaluazioa Lan-F bidez jakinarazi.

j) Aldian-aldean jakinarazi behar dituzte, Lan-F kudeaketarako informatika-aplikazioaren bidez, ikastaroetan sortzen diren ikasleen bajak edo uzteak. Halaber, prestakuntza-ekintzak egitean gertatzen diren gorabehera aipagarrien berri eman behar diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

k) Ikastaroetan libre geratu diren lekuen berri eman behar diete erreserba-egoeran dauden pertsonari, eta ziurtatu behar dute bajak betetzen dituzten pertsonak behar adinako jakintza dutela prestakuntza-ekintzaren gainerako denbora aprobetxatzeko, eta Profesionaltasun Ziurtagiriaren kasuan modulu guztiak osa ditzakete.

l) Praktikak lantokian egiteko prestakuntza-moduluak aurreikusi behar dituzte ikastaroetan parte hartzen duten pertsona guztientzat, aintzat hartuta, betiere, zer salbuespen arautzen dituzten profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko urtarilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua aldatzen duen abenduaren 10eko 1675/2010 Errege Dekretuak eta profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzen dituzten errege-dekretuak.

m) Akordio edo hitzarmenak egin behar dituzte, hain zuzen ere ikastaroetan parte hartzen duten ikasleek praktikak lantokian egiteko prestakuntza-modulua behar adinako bermeekin egingo dituztela ahalbidetzeko.

n) Praktikak lantokian egiteko prestakuntza-moduluen tutoreak izendatu behar dituzte. Tutoreen ardura izango da enpresarekin adostea zer prestakuntza-programa egingo den, eta, enpresak izendatutako tutorearekin batera, ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko du. Horretarako, ikusi eta neur daitezkeen ebaluazio-irizpideak erabiliko dira prestakuntza-programan.

o) Ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen bertaratze-kontrola eraman behar dute.

p) Baja emango diete ikasleei, baldin eta baztertze-egoera hauetakoren batean badaude:

– Prestakuntza-ekintzaren iraupen osoaren % 25ean ez-bertaratzea ekintzara, arrazoa edozein izanik, justifikatuta zein ez.

– Prestakuntza ematen duen zentroaren edo erakundearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz, prestakuntza-ekintza ez aprobetxatzea, edo portaera egokirik ez izatea, eta horietan sartzen dira higie-ne eta osasungarritasunaren arloan exijitu daitezkeen arauak.

Prozedura hau beteko da ikasle bat baztertzea erabakitze-ko:

1) Prestakuntza-zentroak Lanbideko prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertze-ko arrazoi-eko bat gertatu dela; hartarako dagoen eredu-a erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori aztertuko du. Horren ostean, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendariak baztertze-ko prozedura hasteari buruzko erabakia hartuko du. Ikaslea baztertze-ko proposamena egiteko arrazoa azalduko da erabaki horretan, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, gehienez 15 eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko behin-behineko neurriak har daitezke baztertze-prozedurari ekiteko erabakian. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea behin-behineko izaeraz baztertzea ikastarotik, erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebatzen den bitartean.

Ikasleren baten ez-asistentzi-ek % 25ean gainditzen badute prestakuntza-ekintzaren iraupen-ordu kopurua, prestakuntza-zentroak horren berri espresuki emango dio prestakuntzako teknikariari, ikaslearen baja egiteko. Modulu oso bat geratzen bada egiteko, eta % 25etik gorako ez-asistentziak arrazoi justifikatu batengatik gertatu badira (adibidez, gaixotasuna izatea edo lan-jarduera hastera), baloratu ahalko da pertsonak geratzen den modulua egitea.

2) Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakin-razi eta biharamunetik aurrera.

q) Ikasleei gogoraraztea, prestakuntza-ekintza amaitzen denean, prestakuntza-ekintzen kalitate-a ebaluatze-ko galdetegiak telematikoki bete beharko dituztela.

r) Lanbideko teknikari-ek bisitaldiak egitea erabaki dezakete intzidentziak egiaztatu eta konpon-tze-ko, eta zentro-ek erraztu egin behar dituzte bisitaldi horiek.

s) «Bukaerako Ebaluazioari buruzko Akta» egin behar dute. Horretarako, Lan-F informati-ka-aplikazioa erabiliko dute, gainditutako prestakuntza egiaztatze-ko diplomak aterako dituzte aplikazio horretatik eta ikasleei eskuratuko dizkiete, profesionaltasun-ziurtagiria egiteko eskaera-ekin batera, hala badagokio. Ikasleak ikastaroa emaitza positiboarekin gainditzen ez badu, berriz, bertaratze-ziurtagiri bat emango zaio.

t) Egin diren agindutako ekintzak justifikatzea eta diruz lagunduko diren baliabide ekonomikoak aplikatzea. Horretarako, 15 eguneko epea (amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita) egongo da, eta III. eranskin-eko C atalean ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako agiri-ekin egingo da.

u) Frogaketa- eta kontrol-jarduerak igaro beharko dituzte, zehazki Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarenak, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomiko-ko Bulegoarenak, Enplegu eta

Gizarte Politiketako Sailarenak, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak ere; baita Europako Gizarte Funtsaren (EGFren Unitate Administrazioa, Europako Batzordea eta Kontuen Auzitegia) kofinantzaketarekin lotutako kontrol-eskabideak ere. Hala, lokal eta instalazioetarako sarbidea errazteaz gainera, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatzea egoki irizten dioten beste edozein pertsonarekin harremanetan jartzen utzi beharko die.

Horren haritik, eta araudi komunitarioak ezartzen duen moduan, Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa duten prestakuntza-ekintzetan ikuskapen-bisitak egingo dira in situ, Europako funtsetatik eratorritako eskakizunak betetzen diren egiaztatzeko.

v) Diruz lagundutako gastuak Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuraduneari laguntzarekin loturiko transakzioak zehaztu beharko ditu, kontabilitate-identifikazio bereizi batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.

w) Ikastaroak eman dituzten zentroek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako ikastaroen emaitzen aktak gordetzea eta zaintzea, bai eta finantzatutako jarduerari buruzko dokumentazio guztia ere, 2023ra arte agindu hau betetzeko konpromisoak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren betebeharrak honako hauek dira:

a) Kudeaketa-gomendioari buruzko akordio honetan oinarrituta egiten diren prestakuntza-ekintzak finantzatu behar ditu.

b) Prestakuntza-zentroetako arduradunekin lankidetzan aritu behar du, prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko. Horretarako, ezarritako aurrerapenez eman behar ditu hautagaien zerrenda, bai eta lehentasunak ezartzeko prozesurako informazioa ere; halaber, aholkularitza teknikoa eman behar du prozesu horretan.

c) Gertatzen diren intzidentziak konpontzen lagundu behar die ikastaroak ematen dituzten zentroi.

d) Ikastaroetan parte hartu dutenek profesionaltasun-ziurtagiria eskatzeko egiten dituzten eskabideak erregistratu behar ditu.

e) Profesionaltasun-ziurtagiriak egin eta entregatu behar ditu.

f) Prestakuntza-ekintzetako diplomen eta horiek dakartzaten profesionaltasun-ziurtagirien erregistroa eguneratu egin behar du.

Hamaikagarrena.– Hezibi eta Lehen Aukera programa sustatzea kudeaketa-gomendioaren bidez.

Lanik gabe dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan, prestakuntza-zentroek gazteentzako txandakako prestakuntza sustatuko dute, eta, horretarako, profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prestakuntza-ekintzak –kudeaketa-gomendio honetan onartutakoak– Hezibi proiektu bihurtuko dituzte. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bateratuak arautzen ditu proiektu horiek, eta prestakuntza eta lana txandakatzeko gazteentzako Hezibi programaren oinarri arautzaileak ezartzen ditu.

Agindu horretan ezarritako eran kudeatuko dira proiektu horiek.

Era berean, prestakuntza-ikastetxeek 30 urtetik beherako gazteen kontratazioa bultzatuko du Lehen Aukera programaren bidez.

Hamabigarrena.— Europako kofinantzaketatik eratorritako gardentasunerako betebeharrak.

Kudeaketa-gomendio honi dagozkion datuak Europako Parlamentuaren eta Kontseilua-ren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115.2 artikuluan aipatutako zerrenda publikoan jasoko da.

Hamahirugarrena.— Aginduaren indarraldia.

Onartutako programaziorako eta diru-dotazioarekin beteko da kudeaketa-gomendio hau.

Hamalaugarrena.— Kudeaketa-aginduak ez dakar ez eskumenen (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleituak) titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoaren ardura izango da kudeaketa-agindu honen xede den jarduera material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Bi aldeek edukiarekin ados daudela adierazten dute, eta, hala jasota gera dadin, kudeaketa-agindua formalizatzeko agiri hau sinatu dute.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 1a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2017ko abenduaren 12a, asteartea

I. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-EKINTZEN ZERRENDIA: LANGABEAK

LH	Mota	Zentroa	Af kod.	Esp kod.	Fam kod.	Prestakuntza-ekintzen izena	Ik. kop.	Ordu kop.	Zenbatekoa
A	BHI	IES Laudioalde Lanbide Eskola BHI	17010402	FMEH0109	FME	Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa	12	540	51.840,00
A	LHII	CIFP Construcción LHII	17010407	EOCJ0311	EOC	Estaldura arinetako oinarritzko eragiketarak eta eraikuntzako teknikariak	15	270	28.912,95
A	LHII	CIFP Construcción LHII	17010409	MAMD0109	MAM	Bernizen eta laken aplikazioa zurgintzako eta altzarigintzako elementuetan	15	170	18.765,45
A	LHII	CIFP Ciudad Jardín LHII	17010410	ADGD0208	ADG	Giza baliabideen kudeaketa integratua	15	670	67.324,95
A	LHII	CIFP Ciudad Jardín LHII	17010412	IFCT0509	IFC	Interneteko zerbitzuen administrazioa	15	510	52.930,35
A	BHI	IES Laudio BHI	17010414	IMPQ0108	IMP	Ile-apaintetako laguntza-zerbitzuak	12	210	20.160,00
A	LHII	CIFP Ciudad Jardín LHII	17010415	COMV0108	COM	Salmenta-jarduerak	15	510	51.247,35
A	LHII	CIFP Construcción LHII	17010432	EOCJ0110	EOC	Igeltsu xafatuzko plakak eta sabai aizunak instalatzea	15	60	7.200,00
A	BHI	IES Laudioalde Lanbide Eskola BHI	17010433	ELEM0311	ELE	Automatizazio industrialeko sistemen muntaketa eta mantentze-lanak	12	390	37.440,00
A	BHI	IES Zaraobe BHI	17010434	SSCS0208	SSC	Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan	15	370	37.179,45
A	BHI	IES Zaraobe BHI	17010435	FMEE0108	FME	Fabrikazio mekanikoko eragiketa lagungarriak	15	400	44.154,00
A	BHI	IES Zaraobe BHI	17010437	IMAQ0108	IMA	Industria-ekipamenduaren mantentze-lan eta muntaketa mekanikoa	15	240	27.284,40
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010446	FMEE0110	FME	Elektrodo estali bidezko soldadura eta tig soldadura	15	640	76.800,00
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010449	IMAQ0108	IMA	Industria-ekipamenduaren mantentze-lan eta muntaketa mekanikoa	15	510	57.979,35
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010450	IMPE0108	IMP	Estetikako laguntza-zerbitzuak	15	240	24.116,40

2017ko abenduaren 12a, asteartea

LH	Mota	Zentroa	Af kod.	Esp kod.	Fam kod.	Prestakuntza-ekintzaren izena	Ik. kop.	Ordu kop.	Zenbatekoa
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010451	TMVL0509	TMV	Ibilgailuen pintura	15	460	53.813,10
A	LHII	CIFP Hostelería-Ostalaritza LHII	17010460	HOTR0509	HOT	Gozogintza	17	420	48.117,30
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010461	AFDP0109	AFD	Ur-instalazioetako sorospena	15	290	34.800,00
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010462	ELEE0109	ELE	Behe-tentsioko instalazio elektrikoak muntatzea eta mantentzea	15	230	24.629,55
A	BHI	IES Francisco de Vitoria BHI	17010471	SSCS0208	SSC	Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan	15	370	37.179,45
A	LHII	CIFP Mendizabala LHII	17010474	IMSV0109	IMS	Ikus-entzunezkoen muntaketa eta postprodukzioa	15	430	44.627,55
A	LHII	CIFP Hostelería-Ostalaritza LHII	17010497	HOTR0508	HOT	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak	17	560	70.439,60
A	BHI	IES Francisco de Vitoria BHI	17010500	SANT0208	SAN	Osasun-garraioa	15	400	41.514,00
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480022	ELES0208	ELE	Eraikinetan instalazio elektrikoak eta telekomunikazioetakoak muntatzeko eragiketa osagarriak	15	300	32.125,50
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480024	ELES0109	ELE	Lokalen sonorizazioko, megafoniako eta telebista-zirkuitu itxietako instalazioak muntatzea eta mantentzea	15	270	28.912,95
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480025	ENAE0108	ENA	Eguzki-instalazio fotovoltaikoen muntaia eta mantentze-lanak	15	420	44.975,70
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480026	ELES0208	ELE	Eraikinetan instalazio elektrikoak eta telekomunikazioetakoak muntatzeko eragiketa osagarriak	15	40	4.283,40
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480329	FMEE0108	FME	Fabrikazio mekanikoko eragiketa lagungarriak	15	400	44.154,00
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480330	FMEE0208	FME	Makina industrialen eta ekipamendu-ondasunen muntaia eta prestaketa	15	610	69.347,85
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480331	FMEE0308	FME	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	15	600	62.271,00
B	BHI	IES Andra Mari BHI	17480332	FMEH0109	FME	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	15	540	64.800,00

2017ko abenduaren 12a, asteartea

LH	Mota	Zentroa	Af kod.	Esp kod.	Fam kod.	Prestakuntza-ekintzaren izena	Ik. kop.	Ordu kop.	Zenbatekoa
B	LHII	CIFP Emilio Campuzano LHII	17481972	TMVG0209	TMV	Ibilgailuen sistema elektrikoak eta elektronikoak mantentzea	15	440	52.800,00
B	LHII	CIFP Emilio Campuzano LHII	17482223	ELEM0110	ELE	Automatizazio industrialeko sistemen proiektuak garatzea	15	70	7.726,95
B	LHII	CIFP Elorrieta Erreka-Mari LHII	17482391	FMEH0109	FME	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	15	540	64.800,00
B	LHII	CIFP Hostelería/Ostalaritza LHII	17482395	HOTR0508	HOT	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak	15	560	67.200,00
B	LHII	CIFP Hostelería/Ostalaritza LHII	17482396	HOTR0608	HOT	Jatetxeko zerbitzuak	15	500	53.542,50
B	LHII	CIFP Hostelería/Ostalaritza LHII	17482397	HOTR0509	HOT	Gozogintza	15	420	46.361,70
B	BHI	IES Eskurtze BHI	17482404	SSCS0208	SSC	Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea erakunde sozialetan	15	370	37.179,45
B	BHI	IES Eskurtze BHI	17482405	TMVG0409	TMV	Motora eta haren sistema osagarriak mantentzea	15	440	52.800,00
B	BHI	IES Eskurtze BHI	17482407	FCOV27	FCO	Hizkuntzarik gabeko profesionaltasun-ziurtagiriari trako 2. mailako funtsezko gaitasunak: hizkuntza-komunikazioa	15	240	24.116,40
B	LHII	CIFP Elorrieta Erreka-Mari LHII	17482448	IMAR0208	IMA	Girotzeko eta aireztatzeko-erazteko instalazioen muntaia eta mantentze-lanak	15	380	43.200,30
B	BHI	IES Barrutialde BHI	17482450	FMEH0109	FME	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	15	260	31.200,00
B	BHI	IES Barrutialde BHI	17482452	FMEH0409	FME	Urraduraren, elektrohidraduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa	15	80	9.600,00
B	LHII	CIFP Fadura LHII	17482456	ELES0208	ELE	Eraikinetan instalazio elektrikoak eta telekomunikazioetakoak muntatzeko eragiketa osagarriak	15	300	32.125,50
B	LHII	CIFP Fadura LHII	17482457	FMEH0109	FME	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	15	540	64.800,00
B	LHII	CIFP Fadura LHII	17482458	SANT0208	SAN	Osasun-garraioa	15	400	41.514,00
B	LHII	CIFP Construcción Bizkaia LHII	17482475	EOCB0003OV	EOC	Sate: isolamendu termiko bidezko sistema	15	120	15.820,20

LH	Mota	Zentroa	Af kod.	Esp kod.	Fam kod.	Prestakuntza-ekintzaren izena	Ik. kop.	Ordu kop.	Zenbatekoa
B	LHII	CIFP Repelega LHII	17482492	ADGG0208	ADG	Jarduera administratiiboak bezeroarekiko harremanean	20	680	73.191,80
B	LHII	CIFP Repelega LHII	17482493	COMV0108	COM	Salmenta-jarduerak	15	510	51.247,35
B	LHII	CIFP Repelega LHII	17482495	IMAR0408	IMA	Bero-instalazioen muntaia eta mantentze-lanak	20	380	47.589,30
B	LHII	CIFP Escuela de Hostelería LHII	17482501	HOTR0508	HOT	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak	15	560	67.200,00
B	LHII	CIFP Escuela de Hostelería LHII	17482502	HOTR0408	HOT	Sukaldaritza	15	730	87.600,00
B	LHII	CIFP Escuela de Hostelería LHII	17482505	INAF0108	INA	Okintza eta opilgintza	15	450	51.158,25
B	LHII	CIFP Escuela de Hostelería LHII	17482506	INAI0108	INA	Harakintza eta haragikien elaborazioa	15	430	51.600,00
B	BHI	IES Barritalde BHI	17482511	MAMR0408	MAM	Altzariak instalatzea	15	80	9.600,00
B	BHI	IES Barritalde BHI	17482512	MAMS0108	MAM	Zurgintzako elementuak instalatzea	15	60	7.200,00
B	BHI	IES Barritalde BHI	17482515	MAMD0109	MAM	Bernizen eta laken aplikazioa zurgintzako eta altzarigintzako elementuetan	15	40	4.415,40
